



INGENIARITZA KIMIKOKO GRADUA

HIRUGARREN MAILAKO IKASLEAREN GIDA

2021-2022 IKASTURTEA

Edukien taula

1. Ingeniaritza Kimikoko Graduari buruzko informazioa	3
Aurkezpena.....	3
Titulazioaren Gaitasunak	3
Graduko Ikasketen Egitura.....	3
Hirugarren Mailako Irakasgaiak Graduaren Testuinguruan	4
Egin Beharreko Jarduera Motak	5
Gradu Amaierako Lana	6
Mugikortasuna	7
Kanpoko praktika akademikoak.....	7
Tutoretza akademikoak	7
Tutoretza Plana (TP)	7
Koordinazioa	8
Bestelako informazio interesgarria.....	8
2. Taldearentzako informazio espezifiko.....	9
Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan	9
Taldeari dagozkion jardueren egutegia	9
Irakasleak.....	9
ERANSKINA I	10

Gida hau Ingeniaritza Kimikoko Graduko Ikasketa Batzordeak (IKGIB) egin du

1. Ingeniaritza Kimikoko Graduari buruzko informazioa

Aurkezpena

Ongi etorri Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ingeniaritza Kimikoko Graduak 3. Ikasturtera. Aurreko ikasturtean oinarritzko ezagueran lortutako prestakuntzarekin, ikasturte honetan Ingeniaritza Kimikoko oinarritzko gai teknologiko espezifikagoak sartzen dira, non osaeran, eduki energetikoan edo egoera fisikoan aldaketaren bat jasaten duten substantzietan oinarritutako sistemak aztertzen hasten diren.

Gradua atzerriko egonaldiren batekin bukatu nahi baduzu, azken ikasturtearen ikasketa batzuk edota Gradu Amaierako Lana ikasiz, truke akademikoko programei buruzko informazioa jasotzeko orain da une egokia, eta datorren ikasturtean eskatu behar duzu. Truke akademikoko programei, enpresetako praktikei eta prestakuntza osagarriari buruz behar duzun informazioa Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ikaslearentzako Arreta Zerbitzuaren (ZTFIAZ) ematen da. Hau arduratzen da, halaber, administrazio izapideak egiteaz (kanpo praktikei dagokienez, UPV/EHUko PraktiGes sistema informatikoa erabilita).

Titulazioaren Gaitasunak

Ingeniaritza Kimikoko Graduak Prozesuak eta Produktuak diseinatzeko jakingo duten profesionalak prestatu behar ditu, besteak beste, osaeran, egoeran edo eduki energetikoan aldaketak jasaten dituen materialen oinarritutako dauden eta Industria Kimikoa eta erlazionatutako beste sektore batzuk (adibidez, Botikagintzako, Bioteknologikoa, Elikagaiena eta Ingurumenekoa) bereizten dituen Prozesuak garatzeko ekipo eta instalazioak pentsatu, kalkulatu, eraiki, abiarazi eta erabiltzen jakingo dutenak.

Prestakuntza honi esker, hainbat arlotan lan egin ahal izango duzu: Manufaktura industrian, Diseinu eta Aholkularitza enpresetan, Aholkularitza Teknikoko, Lege Aholkularitzako eta Aholkularitza Komertzialeko lanetan, Administrazioan eta bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko Irakaskuntzan; zeure kabuz ere aritu ahal izango duzu lanbidean eta irizpenak eta peritatzeak egin ahal izango dituzu.

Graduko Ikasketen Egitura

Ikasketa plana Ingeniaritza Kimikoko graduatzeko funtsezkotzat jo diren gaitasunak hartzearekin erlazionatutako helburu zehatzak lortzera bideratuta dago. Gaiak eta irakasgaiak hala antolatzeari esker, pixkanaka hartuko duzu Ingeniaritza Kimikoko prestakuntza. Prestakuntzako edukiak diseinatzerakoan egokitu zaien kreditu kopurua dagozkion gaitasunak hartzeko behar dena eta egin beharreko ahalegina ikasle gehienentzat egingarria izateko egokia dena da.

1. Taula. Ikasketen egitura eta irakaskuntzen antolaketa.

Mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	GUZTIRA
Ingeniaritza adarraren oinarritzko irakasgaiak	48	27			75
Nahitaezkoak	12	33	60	19,5	124,5
Kanpo praktikak				12	12
Gradu Amaierako Lana				10,5	10,5
Hautazkoak				18	18
Guztira	60	60	60	60	240

1. Modulua. Oinarritzko prestakuntza (75 kreditu)

Nagusiki Ingeniaritza Kimikoko oinarritzko irakasgaiak osatua; hauen helburua ikaslea arlo horietako berezko problemak identifikatu, formulatu eta ebazteko gai egitea da, baita, Ingeniaritza Kimikoaren esparruan, ikasleari kimikan, matematikan, estatistikan, fisikan, informatikan, adierazpen grafikoan eta enpresen administrazioan oinarri zientifiko eta teknologikoak ulertu eta aplikatzeko gaitasuna ematea ere.

2. Modulua. Industria adarreko moduluarekin bateratua (61,5 kreditu)

Industria adarreko baterako irakasgaiak osatua; hauen helburua Ingeniaritza Kimikoaren arloan ikaslea sistema dinamikoa, eragiketak eta prozesuak diseinatu eta modelizatzeko gai egitea da, baita, arlo berean, ikasleari hainbat arlotako oinarri zientifiko eta teknologikoak (kimika, materialak, elektroteknia eta elektronika, automatika eta kontrola, fluidoaren energia eta mekanika, ingurumena, diseinu mekanikoa eta ingeniaritzako proiektuak) ulertu eta aplikatzeko gaitasuna ematea ere.

3. Modulua. Teknologia espezifikoa: ingeniartza kimikoa (63 kreditu)

Ikasleak ingeniartza kimikoa industria kimikoari eta erlazionaturiko beste industria sektore batzuei eskaintzen dizkien ekoizpen, teknologia eta zerbitzu sistemetan kalitate irizpideak eta etengabeko hobekuntza prozedurak aplikatzeko gaitasuna hartzeko gaiak osatzen dute. Ingeniartza Kimikoaren arloan ikasleari hainbat esparrutako oinarri zientifiko eta teknologikoak (ingeniartza kimikoaren oinarriak, materiaren transferentzia, bereizketa argiketak, zinetika eta errektore kimikoak, bioteknologia eta prozesuen eta produktuaren ingeniartza) ulertu eta aplikatzeko gaitasuna eman nahi zaio.

4. Modulua. Sakontzea (18 kreditu)

Hautazko 8 irakasgai osatzen dute eta hauen helburua da Ingeniartza Kimikoko gaien ezagupen eta aplikazioan sakontzea eta ikasleek aurrez hartutako ezagutza eta gaitasunak ikuspegi ekonomiko eta sozialetik interes estrategikoa duten gaurkotasuneko industria sektoreetara zabaltzea. Hala, 4 irakasgai egin beharko dituzu aipatu 8etatik eta horietan ondorengo sektore industrialetarako interesgarriak diren gaitasunak hartu ahal izango dituzu: petrolio eta petrokimika, energia berriztagarriak, ekoindustria eta ingurumenari, mikrobiologiari eta bioteknologiari loturiko industria; eta segurtasunaren filosofia eta arriskuak minimizatzeko ekintzak gainerako gaitasunekin integratuko dira.

5. Modulua. Kanpo praktikak (12 kreditu)

Kanpo praktikak ezagutzen ikuspegi aplikatua eta industriarekiko harreman zuzena eskaintzen dituzte. Nahitaezko kanpo praktiken 12 kreditu ezartzen dira, enpresa edo zentro publikoetan egingo direnak, ikaslearen 300 orduko presentziarekin. UPV/EHUK hitzarmenak ditu enpresa ugariarekin, ikasleek praktikak egin ahal izateko. Enpresa horien artean Ingeniartza Kimikoa nagusi duten sektore industrialetako adierazgarrienak daude. Aratuegia irakurtzea gomendatzen da:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/insercion-laboral>

http://www.ehu.eus/documents/19559/1492311/practicass_ext_IQ_eu.pdf

6. Modulua. Gradu amaierako lana (10,5 kreditu)

Gradu Amaierako Lana graduazio aurreko azken ariketa da eta, bertan, ikasleak irakasgai guzti-guztietan hartutako gaitasunen laburpena egiten du.

Hirugarren Mailako Irakasgaiak Graduaren Testuinguruan

Hirugarren mailan egingo dituzun irakasgaiak 2. Taulan erakusten dira. Ikus dezakezunez, irakasgaiak hurrengo moduluekin bat datoz: oinarriko prestakuntza, industria adarra eta Ingeniartza Kimikoaren espezifikoa. Lehenengo lauhilekoko "Materia Transferentzia" eta "Erreaktoreen diseinua" irakasgaiak, eta bigarren lauhilekoko "Bereizketa Prozesuak" ingelesez ere eskaintzen dira (Mass Transfer, Reactor Design eta Separation Processes, hurrenez hurren).

2. Taula. I.K.G-ko hirugarren mailako irakasgai dagozkien kredituen banaketa

Modulua	Gaia	Irakasgaia	Lauhilekoa	Kredituak
Teknologia espezifikoa IK	Nahitaezkoa	Esperimentazioa Ingeniartza Kimikoan II	1-2	9
Teknologia espezifikoa IK	Nahitaezkoa	Prozesuen eta Produktuen Ingeniartza	1-2	9
Teknologia espezifikoa IK	Nahitaezkoa	Materia Transferentzia	1	6
Teknologia espezifikoa IK	Nahitaezkoa	Erreaktoreen Diseinua	1	6
Industria Adarra	Nahitaezkoa	Ingeniartza Elektrikoaren eta Elektronikoaren Oinarriak	1	6
Industria Adarra	Nahitaezkoa	Materialen Erresistentzia	1	6
Teknologia espezifikoa IK	Nahitaezkoa	Bereizketa Prozesuak	2	6
Industria Adarra	Nahitaezkoa	Prozesu Kimikoetako Tresneria eta Kontrola	2	6
Industria Adarra	Nahitaezkoa	Materialen Ingeniartza	2	6

Irakasgai bakoitzaren edukiaren laburpena 3. Taulan erakusten da.

3. Taula. I.K.G.-ko hirugarren mailako irakasgaien edukiaren laburpena.

Irakasgaia	Irakasgaien edukiaren laburpena
Esperimentazioa Ingeniaritza Kimikoan II	Irakasgai hau egiteko betebeharrak: ikaslea-irakasgai honetan matrikulatu ahal izateko, hurrengo irakasgai guztietan gutxienez behin matrikulatuta egon behar izan da: - o Materia Transferentzia - o Bereizketa Prozesuak - o Prozesu Kimikoetako Tresneria eta Kontrola Ingeniaritza Kimikoko Hirugarren mailako irakasgaiei dagozkien laborategi praktikak burutzea. Hurrengo irakasgaien esperimentazio aplikatuaren diseinua eta kudeaketa: materia transferentzia, bereizketa prozesuak, erreaktore kimikoak eta prozesuen kontrola. Emaizta esperimentalen aplikazioa prozesuetarako instalazioen diseinuan
Prozesuen eta Produktuen Ingeniaritza	Prozesuen analisia eta sintesia. Prozesuen simulazioa. Prozesuen sintesirako metodo algoritmikoak. Produktuaren garapena kimika industrian. Kimika industria. Egitura analisia. Lehengaiak eta produktuak industri prozesu kimikoen adibide esanguratsuak.
Materia Transferentzia	Transferentziaren mekanismoak eta oreka. Bereizketa prozesuen termodinamika. Materia transferentzia. Etapa bakarreko prozesuak. Etap0a aniztuneko prozesuak. Ekipoak.
Erreaktoreen Diseinua	Erreaktore ideal homogeneoen analisia eta diseinua. Prozesu baldintzen optimizazioa. Emari erreala eta bere kontsiderazioa diseinuan. Erreaktore heterogeneoen analisia eta diseinu sinplifikatua. Segurtasuna. Kontribuzioa jasangarritasunera.
Ingeniaritza Elektrikoaren eta Elektronikoaren Oinarriak	Ingeniari Kimikorako erabilgarriak diren ingeniaritza elektrikoaren eta elektronikaren gaien oinarritzko ezaguera, osatzen duten gai hauen kontzeptuen, metodoen eta dispositiboaren sarrera. Ingeniaritza elektrikoari dagokionez, transformadoreen oinarritzkoen kontzeptuak eta beraien erlazioa banaketa elektrikoaren sistemekin, txandakako korronteko zein korronte sistemekin eta alderantzizkoekin sartzan dira Elektronikaren oinarriak gailuetan eta osagai elektronikoetan, diodoetan, transistoreetan eta abarretan zirkuitu elektronikoetan, neurketan eta instrumentazioan enfasiarekin, eta gailuen arteko komunikaziorako sistemetan banatzen dira.
Materialen Erresistentzia	Oinarriak. Materialen egitura. Ezaugarri mekanikoak. Esfortzuak eta deformazioak habean. Bihurdura. Flexioa. Horma meheko ontzien gaineko esfortzuak. Saiakuntza estatikoak eta dinamikoak. Arauak.
Bereizketa Prozesuak	Bereizketa prozesuen ezaugarri orokorrak. Bereizketa prozesurik garrantzitsuen garapena: xurgapena eta desortzioa, distilazio bitarra, erauzketa, lehorketa, kristalizazioa, adsortzioa, ioi-trukea, kromatografia, mintzen bidezko bereizketak.
Prozesu Kimikoetako Tresneria eta Kontrola	Neurketarako gailuak kimika industrian. Begizta irekiko sistema linealen dinamika. Birelika durarekiko kontrola. Egonkortasuna begizta itxian. Kontroladoreen sintonia. Kaskadako kontrola. Begizta zuzeneko kontrola. Aldagai aniztuneko kontrola.
Materialen Ingeniartza	Difusioa solidoetan. Faseen diagramak. Material metalikoak, zeramikoak, polimerikoak eta konposatuak. Funtzioetarako materialak. Prestakuntza eta prozesaketa. Hautatzeko irizpidea.

Irakagai bakoitzari buruzko informazio zehatza I. Eranskinean ikus daiteke. Informazio hori Zientzia eta Teknologia Fakultatearen webgunean ere ikus daiteke, Ingeniaritza Kimikoko Graduaren atalean hain zuzen.

<http://www.ehu.eus/eu/web/ztf-fct/grado-ingenieria-quimica>

Egin Beharreko Jarduera Motak

Ingeniaritza Kimikoko Graduaren intranetean, ikasturtean zehar egin beharreko jardueren egutegi eguneratua ere aurkituko duzu bertan. 4a eta 4b Tauletan ihardueraren araberrako bertaratuta egindako orduen banaketa erakusten da.

4a. Taula. Irakaslanaren banaketa (bertaratuta egindako orduetan) lehenengo sei hilekoan.

Irakasgaia	Magistralak	Ikasgelako praktikak	Ordenagailuko praktikak	Mintegiak	Laborategiko praktikak
Esperimentazioa Ingeniaritza Kimikoan II	4			8	24
Prozesuen eta Produktuaren Ingeniaritza	25	9	5	6	
Materia Transferentzia	35	15	5	5	
Erreaktoreen Diseinua	25	20		9	6
Ingeniaritza Elektrikoaren eta Elektronikoaren Oinarriak	30	10	5	5	10
Materialen Erresistentzia	25	20		15	
Guztira	144	74	15	48	40

4b. Taula. Irakaslanaren banaketa (bertaratuta egindako orduetan) bigarren sei hilekoan.

Irakasgaia	Magistralak	Ikasgelako praktikak	Ordenagailuko praktikak	Mintegiak	Laborategiko praktikak
Esperimentazioa Ingeniaritza Kimikoan II	8			16	30
Prozesuen eta Produktuaren Ingeniaritza	25	9	5	6	
Bereizketa Prozesuak	35	15	5	5	
Prozesu Kimikoetako Tresneria eta Kontrola	28	22	6	4	
Materialen Ingeniaritza	40	5		15	
Guztira	136	51	16	46	30

Gradu Amaierako Lana

Gradu Amaierako Lana (GRAL) ikasle bakoitzak zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean banaka egin behar duen proiektu, memoria edo azterlana da. Lan horretan txertatu eta garatu beharko dira, hain zuzen, Graduako ikaskuntza-prozesuan zehar jasotako prestakuntza-edukiak, gaitasunak eta trebetasunak.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Gradu Amaierako Lana Egin eta Defendatzeari Buruzko Arautegian ikasleek GRALa egiten hasteko ezagutu behar dituzten fase eta bete beharreko baldintzen inguruko xehetasunak azaltzen dira. Hurrengoak dira 2021/22 ikasturteko data garrantzitsuak:

Aurreinskripzioa (2021eko uztailak 14-16, biak barne): online betetzeko formularioaren bidezko aurreinskripzioa: https://www.ehu.eus/eu/web/ztf-fct/tfg_aurreinskripzioa

Inskripzioa edo izen-ematea: GRALean izena emateko, 72 kreditu eduki daitezke gehienez egin gabe (4. mailako 60 kredituak eta aurreko ikasturteetatik gehienez gera daitezkeen 12). Bi aukera daude:

- o **2021eko irailak 1-10** (biak barne): irakasleek ikasleekin **adostutako lanen** izenak ematen dituzte eta, aldi berean, adostu gabeko lanen gaiak eskaintzen dituzte, gero ikasleek hautatu ditzaten.
- o **2021eko irailak 22-24** (biak barne): **adostutako lanik ez** duten ikasleek GAUREn bidez egiten dute gaien aukeraketa. Zerrendatik gehienez bost gai hautatu daitezke.

Esleipena (2021eko irailak 27- urriak 1, biak barne): GRALen gaien behin betiko esleipena egindakoan ikasleei posta elektronikoki bidez mezua helarazten zaie.

Matrikulazioa, memoria entregatzea eta defentsa: matrikulak bi defentsa deialditarako eskubidea ematen du ikasturteko. Matrikulatzeko, ikasleak Graduako kreditu guztiak gaindituta izan behar ditu, GRALarenak izan ezik. 2021/22 ikasturtean, honako hauek izango dira matrikularako eta defentsarako datak:

Deialdia	Matrikula eta Memoria entregatzea	Defentsa
Otsaila	2022ko otsailaren 14-17	2022ko martxoaren 7-11
Ekaina	2022ko ekainaren 22-24	2022ko uztailaren 13-15
Abuztua	2022ko uztailaren 22-26	2022ko irailaren 7-9

GRALari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/trabajos-fin-grado>

Ingeniaritza Kimikoko Graduko araudi espezifikoak:

https://www.ehu.eus/documents/19559/1482414/normativa_TFG_IQ_eu_mod_2017.pdf/a1fe16ae-83dc-935a-a720-73efa73631de?t=1513590366000

Mugikortasuna

Fakultateak parte hartzen duen mugikortasun programen bidez, ikasleek aukera izango dute lauhileko edo ikasturte oso bat beste unibertsitate batean ikasteko. Bete beharreko baldintzak eta kontuan izan beharreko gainerako informazioa hurrengo estekan ikus daitezke: <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/programas-intercambio-alumnado>

Kanpoko praktika akademikoak

Kanpoko erakundeetan praktikak egitea aukerak zabaltzen dizkie ikasleei lan-munduan sartzeko, eta ezagutza eta gaitasun praktikoak bereganatzeaz ez ezik, lan-eskarmentua ere eskuratzen dute. Kanpoko praktika kurrikularrez gain (derrigorrezkoak), Ingeniaritza Kimikoko Graduan ere posible da kurrikulumaz kanpoko praktikak (borondatezkoak) egitea. Kanpoko praktika akademikoak egiteko, 120 ECTS gaitututa egon behar dira aurretik. Informazio gehiago hurrengo estekan:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/insercion-laboral>

Tutoretza akademikoak

Tutoretza akademikoa prozesu bat da, zeinetan irakasle batek ikasleei aholkularitza eta orientazio akademikoa eskaintzen baitizkie. Aholkularitza honi esker ikasleak laguntza jasoko du ikasten dituen irakasgaietan. Lauhileko bakoitzaren hasieran irakasle bakoitzak bere tutoretza-ordutegien berri emango du.

Tutoretza Plana (TP)

Tutoretza Planaren (TP) bidez ikasleei irakasle tutore bat edukitzeko aukera eskaintzen zaie eta, horrela, unibertsitateko bizitzaren alderdi guztietan integratzea errazagoa izango dute. Horrez gain, irakasle tutore bakoitzak ibilbide akademiko osoan zehar orientatuko ditu bere ikasleak.

Irakasle tutoreen xedeak hurrengo hauek dira:

- o prestakuntza integraleko prozesuan ikasleei laguntzea, ikuspegi akademiko, pertsonal eta profesionalen
- o ikasleei Fakultatearen jarduera akademikoan integratzen laguntzea
- o ikasleei unibertsitatean eskuragarri dituzten zerbitzu eta jardueren berri ematea
- o ikasketa aldiaren ager daitezkeen zailtasunak identifikatzea eta ikasteko gaitasun eta estrategien garapena erraztea
- o erabakiak hartzen laguntzea, bereziki curriculum ibilbidea aukeratu behar duenean
- o ikasleen garapen akademiko eta profesionalerako interesgarria izan daitekeen informazioa ematea

Lehenengo mailaren hasieran, irakasle tutore bana esleituko zaie Ingeniaritza Kimikoko Graduko ikasleei. Esleipen hori indarrean egongo da Gradua lortu arte.

Koordinazioa

Gradu Ikasketen Batzordeak (GIB) Graduako koordinazioaz arduratzen dira, hau da, Graduaren curriculumaren garapenaz, jarraipenaz, errebisioaz eta hobekuntzaz arduratzen dira. Hurrengoak dira Ingeniaritza Kimikoko Graduako koordinatzaileak:

Mota	Koordinatzailea	Kontaktua
Gradua	Javier Ereña Loizaga Ingeniaritza Kimikoa Saila	javier.arena@ehu.eus 946015363 B1.P1.14
1. maila	Miriam Arabiourrutia Gallastegi Ingeniaritza Kimikoa Saila	miriam.arabiourrutia@ehu.eus 946018149 B1.P2.8
2. maila TP	Asier Aranzabal Maiztegi Ingeniaritza Kimikoa Saila	asier.aranzabal@ehu.eus 946015554 B1.P1.15
3. maila Kanpoko praktikak	Eva Epelde Bejerano Ingeniaritza Kimikoa Saila	eva.epelde@ehu.eus 946015361 A4.P1.8
4. maila Gradu Amaierako Lana	Beñat Pereda Ayo Ingeniaritza Kimikoa Saila	benat.pereda@ehu.eus 946012263 B1.P1.15

Ingeniaritza Kimikoko Graduako GIBei buruzko informazio gaurkotua hurrengo estekan kontsultatu daiteke: <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/comisiones-grado>

Gainera, Graduako irakasgai bakoitzerako koordinatzaile bat izendatuko da, zeina irakasgai hura ematen duen irakasle-taldea koordinatzeaz arduratuko baita. Ingeniaritza Kimikoko Graduako irakasgaietako koordinatzaileak hurrengo estekan kontsultatu daitezke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/coordinacion-asignaturas-ig>

Bestelako informazio interesgarria

Graduko zenbait irakasgaitan, irakasleek ikasgela birtuala erabiltzen dute irakaskuntza presentzialaren osagarri gisa. Ikasgela horiek eGelan daude (<https://egela.ehu.eus>). EGelan sartzeko LDAP erabiltzaile-izena behar da, ikasle bakoitzari esleitzen zaiona ikasle berriko matrikula egitean. LDAP erabiltzailea ere GAUREn sartzeko erabiltzen da, zeina administrazio tramiteak eta ikasleen bizitza akademikoari lotutako datuak kontsultatzeko erabiltzen den erreminta informatikoa baita.

Ingeniaritza Kimikoko Graduan matrikulatutako ikasle bakoitzak posta elektroniko korporatibo propioa dauka; kasu honetan ere, ikasle berriko matrikula egitean helbidea eta pasahitza esleitzen zaio ikasle bakoitzari. Helbide korporatibo horretara iritsiko dira irakasleen, eGelako, dekanotza-taldeko eta unibertsitateko beste estamentuetako mezuak. Helbide honetara iristen diren mezuak posta elektroniko pertsonalera birbideratu daitezke. Informazio gehiago hurrengo estekan: https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/bbc_alumnado. Partekatutako fitxategi ostatu-zerbitzua ere dago (<https://www.ehu.eus/es/group/ikt-tic/bildu>).

Posta korporatiboaren erabilerari edo UPV/EHUko zerbitzu informatikoei lotutako edozein zalantza edo arazo izanez gero, gomendagarria da EAZrekin (Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzua) kontaktatzea <https://lagun.ehu.eus> web orriaren bidez, LDAP erabiltzailea erabiliz. EAZri buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/ikt-tic/eaz-cau> estekan.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ikaslearentzako Arreta Zerbitzuak (ZTFIAZ) aholku ematen die ikasleei, eta enpresetako praktiketan zein akademi-elkartruke programetan parte hartzeko beharrezko izapideez ere arduratzen da. Fakultateko Idazkaritzan kokatuta dago. ZTFIAZri buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/atencion-estudiantes> estekan.

Ingenieria Kimikoko Graduari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/grado-ingenieria-quimica>

Fakultateko web orria:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/>

2.- Taldearentzako informazio espezifiko

Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan

Irakasgai batean talde bat baino gehiago dagoen kasuetan, ikasleei bere taldea zein den jakinaraziko zaie lehenengo asteetan zehar.

Taldeari dagozkion jardueren egutegia

Zentroko eskola-egutegia webgune honetan kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/ztf-fct/calendario>

Ordutegi ofizialak, jarduera bakoitza emango den ikasgelen inguruko informazioarekin batera, eta azterketen egutegi ofiziala fakultateko web-orrian argitaratu eta eguneratuko dira:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/egutegia-ordutegiak> Horrez gain, aurreko estekan ere Graduako ikasgaietarako izendatutako 5. eta 6. deialdiko tribunalak kontsultatu daitezke.

Irakasleak

Gradu honetako ikasgaiak ematen dituzten irakasleen inguruko informazioa (harremanetarako datuak, tutoretza-orduak) graduako webgune instituzionalean kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/ingeniaritza-kimikoko-gradua/irakasleak>

Lotura horretan, irakasle baten informazioa ikusi ahal izateko, nahikoa da irakaslearen izenaren gainean klik egitea.

ERANSKINA I

(IRAKASGAI BAKOITZAREN IKASKETA GIDA)

Irakasgaiak ordena alfabetikoaren arabera ordenatuta daude. COVID-19ren pandemia dela eta, gaur egun irakasgaietan programatuta dauden metodologia eta ebaluazio-sistema aldatu egin daitezke.

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztugabea**Plana** GINQUI30 - Ingeniaritza Kimikoko Gradua**Ikastaroa** 3. maila**IRAKASGAIA**

26762 - Bereizketa Prozesuak

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Milurtekoetan zehar garatuta, nahasteen bereizketa osagai puruetan ezinbestekoa da industria kimikoko eta bioteknologikoko prozesuetan. Planta hauen ekipamendu nagusiak lehengaien, tarteko produktuen eta azken produktuen purifikazioa helburua du. Prozesu hauek materia transferentziagatik kontrolatuta daude eta kasu askotan prozesuaren errentagarritasuna materia transferentziaren menpekoea da.

Irakasgai honek Ingeniaritza Kimikoko Gradu 3. mailako 1. lauhileko "Materia Transferentzia" irakasgaiaren ezagutza behar ditu eta Ingeniaritza Kimikoko Gradu 3. mailako "Esperimentazioa Ingeniaritza Kimikoan II" irakasgaiaren garapen esperimental burutzeko ezauguera egokiak ekartzen ditu.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Gaitasun Bereziak

- Materia eta energia balantzeak erabiliz, instalazioak, ekipamenduak edo prozesuak aztertzea non materiak konposizio aldatetako jasaten dituen.
- Ingeniaritza Kimikoaren, Ingeniaritza Biokimikoaren eta Bioteknologiaren oinarriak ingeniaritzetako oinarritzko eta komuneko funtsekin osatzea.
- Termodinamika aplikatuaren eta materia transferentziaren funtsetan oinarrituta, bereizteko eragiketak aztertzea, modelatzea eta kalkulatzeko.
- Modelo teorikoen eta simulazioen lortutako emaitzak unitate errealetan lortutako emaitza errealekin erkatzea.

Zeharkako Gaitasunak

- Informazio teknologikoa trebetasunarekin erabiltzea.
- Eskuratutako ezaguerak, emaitzak, abilitateak eta trebetasunak idatzizko eta ahozko eratan, eraginkortasunez jakinaraztea.
- Jarduerak lan-taldeetan antolatzea eta planifikatzea.
- Zeregin-esleipenarekiko lantaldeetako lidergoaren garapena, taldearen aniztasunaren onarpenarekin egiturak ezartzea.
- Kalitate irizpideekin, ingurumenagatik sentikortasunarekin planteatutako Ingeniaritza Kimikoari eta Bioteknologiari dagozkien irakasgaiei buruzko arazoak ebaztea.

Bereizketa eragiketen ezaugarri nagusiak. Bereizketa eragiketarik garrantzitsuenen ezaugarria garapena: xurgapena eta desortzioa, destilazio bizarra, erauzketa, lehorketa, kristalizazioa, adsortzioa, ioi-trukea, kromatografia bereizketa mintzekin.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. Bereizketa prozesuetarako sarrera. Industria Kimikoko bereizketa prozesuak. Bereizketa mekanismoak: fase adizioaren edo fase sortzearen bidezko bereizketa; Hesien bidezko bereizketa; Eragile solidoaren bidezko bereizketa; Gradientearen edo kanpoko eremuaren bidezko bereizketa. Lan egiteko erak. Bereizketa-faktorea eta produktuen purutasuna. Bereizketarako energia. Bereizketa prozesuen arteko aukeraketa.
2. Nahaste diluituen xurgatzea eta desortzioa. Nahaste diluituen likido-gas oreka. Erabilitako ekipamendua: Etapetako operazioa: Plateretako zutabeko operazioa. Plateraren eraginkortasuna. Etapa teoriko-kopuruaren kalkulu grafikoa eta aljebraikoa. Betegarritzko zutabeetako operazioa. Betegarri altueraren kalkulua. HETP-a.
3. Nahaste bitarren destilazioa. Lurrun-likido Oreka. Destilazio-motak. Ekipamendu osagarria. Unitatearen diseinu kontsiderazioak. Flash destilazioa. Metodo grafiko hurbildua (McCabe-Thiele-a): errektifikazio-guneko etapa-kopurua, agortze-guneko etapa-kopurua, elikadura-plateraren kokapena. Errefluxu-erlazio optimoa. Murphree-ren eraginkortasunaren erabilera. Betegarritzko zutabeetako operazioa. Egoera ez-geldikorreko destilazioa.
4. Sistema hirutarren likido-likido erauzketa. Likido-likido oreka. Diseinuko kontsiderazio orokorrak. Etapa bateko erauzketa. Etapa anizkuneko sistemetako etapa-kopuruaren kalkulua. Disolbatzaileen kantitate egokia. Sistema nahastezinetako sinplifikazioak.
5. Solido-likido erauzketa. Solido-likido oreka. Diseinuko kontsiderazio orokorrak. Etapa bateko erauzketa. Etapa anizkuneko sistemetako etapa-kopuruaren kalkulua. Disolbatzaileen kantitate egokia. Lixibiazio difusio-eredua.
6. Solido-lehorketa. Lehorketa-oreka. Industria-lehorgailuak. Aire-ura interakzioa: Tenperatura hezea eta asetasun tenperatura. Solidoen lehorketa-zinetika. Lehorgailu ereduak. Lehorgailu ezjarraritutako lehorketa denboraren kalkulua. Lehorte jarraitutako dimentsionaketa. Lehortearen eraginkortasunaren hobekuntza.
7. Kristalizazioa. Kristalizazio-prozesuetako oreka. Kristalen geometria eta tamaina-banaketa. Kristalizazio-zinetika: Nukleazioa eta kristal-hazkuntza. Kristalizaziorako industria-ekipamenduak. Materia eta energia balantzeak kristalizadoreetan. Kristal-populazioen balantzea.
8. Adsortzioa, ioi-trukea eta kromatografia. Xurgatzaileak eta ioi-trukatzaileak. Adsortzioaren eta ioi-trukearen oreka.

Transferentzia prozesuak solido adsorbatzaileetan. Adsortzio eta ioi-trukearen prozesu ezjarraituen, erdijarraituen eta ohandte finkoko prozesuen diseinua. Adsortzio eta trukeen zikloak. Bereizketa kromatografikoak.

9. Mintzen bidezko bereizketen sarrera. Mintzetarako materialak. Moduluak eta mintzen industria-unitateak. Mintzetako garraio prozesuak. Dialisia eta elektrodialisia. Alderantzizko osmosia, mikroiragazpena eta ultrairagazpena. Gas permeazioa. Perbaporizazioa.

METODOLOGIA

Klase magistraletan gai bakoitzari buruzko informazio teoriko garrantzitsua emango, gaien funtsezko alderdiak nabarmenduz. Informazio hau gela birtualetan eta gai bakoitzeko amaieran ematen den bibliografia bereziarekin osatu behar da.

Gelako praktiketan ikasleek, aurreko irakaslearen tutoretzarekin, gai bakoitzari buruzko ariketak arbelean ebartziko dituzte. Ordenagailu klaseetan bereizketa unitatea diseinatzeko problema globala ebartziko da. Hasieran problema ebazteko beharrezko informazioa kalkulu-orri batean bilduko da, geroago Ingeniaritza Kimikoan eta Bioteknologian erabiltzen den EXCEL kalkulu programaren bidez ebazteko. Problema hau hiruzpabost ikasletako lan-taldeek garatuko dute, ikasle bakoitza problemaren fase bakoitzeko liderra eta arduraduna izanik. (gutxieneko bertaratzea %80)

Orri nagusiaren aurkezpena (planteamendua, diagrama eta ebazpenaren laburpena) eta materia eta energia balantzeak Ukipenaren altueraren ala luzeraren kalkulua

Azaleraren eta prozesuaren optimizazioaren kalkulua, kontaktoreko bolumena minimizatuz.

Mintegi klaseetan gai-zerrendarekin erlazioatutako problemak hiruzpabost ikasletako lan-taldeek ebartziko dituzte.

Irakasleak problemak zuzenduko ditu, beraien segimendurako, berrelikadurarako eta hobekuntzarako. Klase hauetara bertaratzea derrigorrezkoa da. (gutxieneko bertaratzea %80)

Bilaketa bibliografikoan autonomian eta ahozko aurkezpenean heziketa osatzeko helburuarekin, talde bakoitzak mintzei buruzko bereizketa eragiketari buruzko gaia idatziz eta ahoz aurkeztu behar du, honakoa ezarritz:

Definizioa, garapen historikoa eta egungo ekipamendua

Diseinuaren metodologia

Egungo eta etorkizunerako erabilerak

Taldeak bakoitza etapa bakoitzeko arduraduna izango da.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	35	5	15		5				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	52	8	22		8				

Legenda: M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 65
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Banakako lanak % 5
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 10
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

ETENGABEKO EBALUAZIOA

Etengabeko ebaluazioa edo azterketa %65 (%40 lehenengo partziala, %25 bigarren partziala)

Etengabeko ebaluaziorako azken azterketa eta bi azterketa partzial egingo dira (1-5 gaiak (2022ko apirilaren 1an) eta 6-9 gaiak (2022ko maiatzaren 13an). Materia kanporatzeko azterketa partzial hauetan teoria zein ariketak gainditu behar dira.

Ariketen ebazpena eta ahozko aurkezpena arbelean %5

Mintzei buruzko idatzizko lanak eta txostenak ahozko aurkezpenarekin %10 (taldeko nota %6, taldekide bakoitzeko nota %4)

Mintegiak (bertaratzea, planteatutako problemen ebazpena): 10%

Ordenagailuko praktikak (bertaratzea, kasu praktikoko baten ebazpena eta idatzizko txostena): %10 (taldeko nota %6, taldekide bakoitzeko nota %4)

Azterketaren gutxieneko kalifikazioa teoria zein ariketak batez bestekoa ezartzeko: 4.0

AZKEN EBALUAZIOA

Ebaluazio probak edo azterketa: %100. Azterketa egunean egingo diren ondoko probak izango ditu

- Idatzizko azterketa teoriko-praktikoa %65
- Mintzen gaiari buruzko planteamendu teorikoen ebazpena (%12.5)
- Excel programaren bidez problema tipoaren ebazpena (%12.5)
- Garatutako programaren ahozko aurkezpena, egindako kalkulu-diagrama azalduz (%10)

Osasun baldintzak irakasgaiaren matrikulatutako ikaslego osoaren edo ikasle batzuen ebaluazioa arestian deskribatutako baldintzetan egitea ahalbideratuko ez balu, Errektoretzak emandako, eta indarrean dauden, ebaluazioaren jarraibideak beteko dira.

Idatzizko azterketa teoriko-praktikoan gutxieneko kalifikazioa teoriarik zein ariketetatik batez bestekoa egiteko: 4.0

AZKEN EBALUAZIO SISTEMAREN ESKAERA

Ikasleek azken ebaluazio bidez ebaluatutako izateko, etengabeko ebaluazioaren parte hartu zein ez hartu, etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen irakasgaiaren egelan deskarga daitekeen idatzia beteta, egelaren bidez aurkeztu beharko dio, irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea (2. lauhileko 1. astetik 9. astera) izango du, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin. Ez da eskaerarik beste metodoren bidez onartuko, ezta epeaz kanpo ere. (2019ko maiatzaren 16an onartutako testua, 8.3 art.).

DEIALDIARI UKO EGITEA

Hala azken ebaluazioaren kasuan nola etengabeko ebaluazioaren kasuan, "Bereizketa Prozesuak" irakasgaiaren azken probaren pisua bada irakasgaiaren kalifikazioaren % 40 baino handiagoa denez, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa <<aurkezteke>> izan dadin. (2019ko maiatzaren 16an onartutako testua, 12.2 art. eta 2019/20 ikasturtean indarrekoa).

(<https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdegrado-graduakoikasketak/akademia-araudiak>)

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio probak edo azterketa: %100. Azterketa egunean egingo diren ondoko probak izango ditu

- Idatzizko azterketa teoriko-praktikoa %65
- Mintzen gaiari buruzko planteamendu teorikoen ebazpena (%12.5)
- Excel programaren bidez problema tipoaren ebazpena (%12.5)
- Garatutako programaren ahozko aurkezpena, egindako kalkulu-diagrama azalduz (%10)

Hautazkoki

Azken hiru probak kurtsoan zehar egindako zereginen kalifikazioarekin konpensa daitezke (35%)

Osasun baldintzak irakasgaiaren matrikulatutako ikaslego osoaren edo ikasle batzuen ebaluazioa arestian deskribatutako baldintzetan egitea ahalbideratuko ez balu, Errektoretzak emandako, eta indarrean dauden, ebaluazioaren jarraibideak beteko dira.

Idatzizko azterketa teoriko-praktikoan gutxieneko kalifikazioa teoriarik zein ariketetatik batez bestekoa egiteko: 4.0

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

EGELA

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

Testu liburua:

Henley, E.J., Seader, J.D., Roper, K., "Separation Process Principles". 3. ed. Ed. John Wiley, Nueva York (2011).

Sakontzeko liburuak:

Coulson, J.M. Richardson, J.F. "Ingeniería Química". Ed. Reverté, Barcelona (1979-84).

Henley, E.J., Seader, J.D. "Operaciones de separación por etapas de equilibrio en Ingeniería Química". Ed. Reverté, Barcelona (1988).

King, C.J. "Procesos de separación", Ed. Reverté, Barcelona (1980).

Treybal, R.E. "Operaciones con transferencia de masa" H.A.S.A., Buenos Aires (1970).

Liburu bereziak:

Blumberg, R., "Liquid-Liquid Extraction", Ed. Academic Press, London (1988).

Haselden, G.G., et al. "Distillation & Absorption". Ed. Hemisphere Publishing, Nueva York (1991).

Wallas S.M. "Phase equilibria in Chemical Engineering". Butterworth Publishers, Stoneham (1985).

Gehiago sakontzeko bibliografia

Kirk-Othermer Encyclopedia of Chemical Technology, 38 Ed. John Wiley (1978-84).
Perry, R.H. et al. "Manual del Ingeniero Químico" 68 Ed. Ed. McGraw Hill, Mexico (1993).
Rouseau, R.W. "Handbook of Separation Process Technology". Ed. John Wiley, Nueva York (1987).
Reid, R.C. et al. "The properties of gases and liquids". Ed. McGraw Hill, Nueva York (1987).

Aldizkariak

Separation and Purification Methods, ISSN-0360-2540, Taylor & Francis inc argitaletxea.
Separation and purification reviews, ISSN-1542-2119, Taylor & Francis inc argitaletxea.
Separation Science and Technology, ISSN-0149-6395, Taylor & Francis inc argitaletxea.

Interneteko helbide interesgarriak

<http://iq.ua.es/links.html>
Ponchon eta Savarit-en metodoko erreminta elkarreragilea <http://iq.ua.es/Ponchon/index.html>
McCabe-en metodoko erreminta elkarreragilea, <http://iq.ua.es/McCabe-V2/index.htm>
Errektifikazio ezjarraitua betegarritzko zutabeetan, <http://w3.ua.es/ite/proyectos/proyectoRDCR/index.html>
Physics Laboratory of NIST-en informazioa <http://physics.nist.gov/cuu/Units/>
IUPAC http://www.iupac.org/dhtml_home.html
<http://lorien.ncl.ac.uk/ming/distil/distildes.htm>
Destilazioa, <http://www.brinstrument.com/fractional-distillation/links.html>
Likido-likido erauzketa, <http://www.liquid-extraction.com/default.htm>
Solido-likido erauzketarako ekipamendua, http://test-equipment.globalspec.com/Industrial-Directory/solid_liquid_extraction

OHARRAK

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzekotan, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

COURSE GUIDE

2021/22

Faculty

310 - Faculty of Science and Technology

Cycle

Not Applicable

Degree

GINQUI30 - Bachelor's Degree in Chemical Engineering

Year

Third year

COURSE

26736 - Chemical Reactor Design

Credits, ECTS:

6

COURSE DESCRIPTION

This course establishes the fundamentals for the design and scale-up of both continuous and discontinuous chemical and biological reactors, together with a design methodology based on reaction kinetics and heat and mass transfer balances. Accordingly, students will be able to select the suitable reactor type for a given reaction system, and establish the reactor dimensions and operating conditions

Although the course fundamental concepts and methodology of the course will be developed assuming ideal systems, we will also study the design considering real and complex ones, with particular emphasis on heterogeneous reactors and biochemical reactors using enzymes and microorganisms.

The course has a strong practical component aimed at instructing students in the design of reactors, which requires their participative engagement with subject's learning process rather than memorizing questions and exercises.

The subject requires solving personal and group assignments on the basis of continuous evaluation assessment. This requires basic understanding of mathematics, physics and chemistry, as well as advanced thermodynamics and kinetics, fluid mechanics, and heat and mass transfer.

Although the basic concepts and methodology are developed in terms of ideal flow, the design will also be approached by considering nonideal flow and the features and fundamentals of heterogeneous reactors, with special emphasis placed on biochemical reactors containing enzymes and microorganisms

A level of B2 or higher is recommended to attend courses taught in English.

COMPETENCIES/LEARNING RESULTS FOR THE SUBJECT

Specifics: Describing chemical and biochemical phenomena in the reactor through the use of mass and energy balances. Analysis and design of ideal homogeneous reactors. Optimization of process conditions from different perspectives, e.g. production, selectivity, economic, among others. Identifying and quantifying ideal flows or mixings, and its implications in the design of reactors. Simplified analysis of heterogeneous reactors used for chemical or biological processing. Introduce concepts associated with the reactor design as safety, environment and sustainability.

Transversals: Manage information from different sources and databases. Communicate and transmit the knowledge, abilities and skills acquired. Planning group activities, including exercises and laboratory assignments. Promoting diversity, critical thinking and innovation. Develop leadership and management skills. Solving problems with scientific and technological quality criteria, respect for the environment and aiming sustainability. Focus concepts to the industrial production of goods.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

INTRODUCTION. Basics of reactor design. Historical evolution. Reactor development. Homogeneous and heterogeneous reactors. Issues to consider in the design. Tools and design stages: micro and macrokinetic models. Current state of reactor design and future prospects.

Types of teaching	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Hours of face-to-face teaching	35	5	15		5				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	52	8	22		8				

Legend: M: Lecture-based

S: Seminar

GA: Applied classroom-based groups

GL: Applied laboratory-based groups

GO: Applied computer-based groups

GCL: Applied clinical-based groups

TA: Workshop

TI: Industrial workshop

GCA: Applied fieldwork groups

Evaluation methods

- Continuous evaluation
- End-of-course evaluation

Evaluation tools and percentages of final mark

- Written test, open questions 65%
- Exercises, cases or problem sets 10%
- Individual assignments 5%
- Teamwork assignments (problem solving, Project design) 10%
- Oral presentation of assigned tasks, Reading 10%

ORDINARY EXAMINATION PERIOD: GUIDELINES AND OPTING OUT

Continuous assessment:

Midterms (2) and final exam: 65% (40 % first mid-term, 25 % second mid-term). The exams are composed of theoretical and practical parts (exercises).

Individual presentation of an exercise (blackboard) (results and communication skills): 5 %.

Problems resolution in groups (at class) (attendance, resolution and report): 10 %.

Computer aided design problem in groups (attendance, resolution and report): 10 % (6 % team mark, 4 % individual mark).

Theoretical work and oral presentation about membrane separations in groups: 10 % (5 % team mark, 5 % individual mark).

A minimum score of 4 in the exams is required for counting the rest of tasks required for the final grade. A final exam and two midterms (lessons 1-5 (1th of April) and lessons 6-8 (13th of May)) will be carried out. Passing the midterms will involve not having to do the final exam but both the theoretical and problems parts must be passed.

Final assessment:

The final assessment consists of the following tasks to be fulfilled in the examination day, which will account for the 100 % of the grade:

- Theoretical and problems exam (65 %)
- Theoretical questions about membrane separations (12.5 %)
- Solving a practical case using the Excel software (12.5 %)
- An oral presentation of the developed Excel program, explaining the performed calculations (10 %).

A minimum score of 4 in the theoretical and problems exams is required for counting the rest of tasks required for the final grade.

If any students cannot carry out the assessment in the terms described above due to sanitary conditions, they will have to follow the assessment guidelines issued by the Rectorate at the time of sitting the exam.

Requesting the final assessment system:

Students that would like to be assessed by means of the final assessment system, regardless their participation in the continuous assessment, will have to present a written notification that is going to be available in e-gela to the corresponding teacher before week 9 of the second term (week 24). Overdue notifications or notifications by other means will not be accepted. (Art. 8.3 Text approved in the Degree Committee of May 16, 2019)

Renunciation:

Both in the case of continuous and final assessment, since the weight of the final exam of the subject "Separation Processes" is greater than 40% of the subject's grade, it will be sufficient not to go in for that final exam so that the final grade of the subject is << not presented >>. (Art. 12.2 Text approved in the Degree Committee of May 16, 2019 and applicable in 2019/20)

EXTRAORDINARY EXAMINATION PERIOD: GUIDELINES AND OPTING OUT

The following tasks to be fulfilled in the examination day, which will account for the 100 % of the grade:

- Theoretical and problems exam (65 %)
- Theoretical questions about membrane separations (12.5 %)
- Solving a practical case using the Excel software (12.5 %)
- An oral presentation of the developed Excel program, explaining the performed calculations (10 %).

If any students cannot carry out the assessment in the terms described above due to sanitary conditions, they will have to follow the assessment guidelines issued by the Rectorate at the time of sitting the exam.

Alternatively, the last three tasks can be balanced out by the marks obtained in the tasks performed during the course.

A minimum score of 4 in the theoretical and problems exams is required for counting the rest of tasks required for the final grade.

MANDATORY MATERIALS

EGELA

BIBLIOGRAFÍA

Basic bibliography

Coulson, J.M. Richardson, J.F. "Ingeniería Química". Ed. Reverté, Barcelona (1979-84).
Henley, e.J., Seader, J.D. "Operaciones de separación por etapas de equilibrio en Ingeniería Química". Ed. Reverté, Barcelona (1988).
King, C.J. "Procesos de separación", Ed. Reverté, Barcelona (1980).
Seader, J.D., Henley, E.J. "Separation Process Principles". Ed. John Wiley, Nueva York (1998).
Treybal, R.E. "Operaciones con transferencia de masa" H.A.S.A., Buenos Aires (1970).
Blumberg, R., "Liquid-Liquid Extraction", Ed. Academic Press, London (1988).
Haselden, G.G., y cols. "Distillation & Absorption". Ed. Hemisphere Publishing, Nueva York (1991).
Wallas S.M. "Phase equilibria in Chemical Engineering". Butterworth Publishers, Stoneham (1985).

Detailed bibliography

Kirk-Othmer Encyclopedia of Chemical Technology, 38 Ed. John Wiley (1978-84).
Perry, R.H. y cols. "Manual del Ingeniero Químico" 68 Ed. Ed. McGraw Hill, Mexico (1993).
Rouseau, R.W. "Handbook of Separation Process Technology". Ed. John Wiley, Nueva York (1987).
Reid, R.C. y cols. "The properties of gases and liquids". Ed. McGraw Hill, Nueva York (1987).

Journals

Separation and Purification Methods, ISSN-0360-2540, editado por Taylor & Francis inc.
Separation and purification reviews, ISSN-1542-2119. editado por Taylor & Francis inc.
Separation Science and Technology, ISSN-0149-6395, editada por Taylor & Francis inc.

Web sites of interest

<http://iq.ua.es/McCabe-V2/index.htm> McCabe-Thiele's method's interactive tool
<http://iq.ua.es/Ponchon/> Ponchon-Savarit method's interactive tool
<http://physics.nist.gov/cuu/Units/> Physical Measurement Laboratory of NIST
http://www.iupac.org/dhtml_home.html IUPAC
<http://archive.is/n1J7L> Distillation
<https://www.brinstrument.com/fractional-distillation/fractional-distillation.php> Fractional distillation
http://www.globalspec.com/industrial-directory/solid-liquid_extraction_equipment Solid-liquid Extraction Equipment
<http://www.liquid-extraction.com> Liquid-liquid extraction

OBSERVATIONS

A level of B2 or higher is recommended to attend courses taught in English.
During the evaluation tests it is not allowed to use books, notes or notebooks, as well as any kind of mobile phone, computer or electronic devices. Only didactic material, devices or computer authorized by the teaching team may be used.
If unethical or dishonest behaviour is detected the protocol dealing with academic ethics and prevention of fraudulent and dishonest behaviour in evaluation test and academic assessments in the UPV/EHU will be applied.

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztu gabea**Plana** GINQUI30 - Ingeniaritza Kimikoko Gradua**Ikastaroa** 3. maila**IRAKASGAIA**

26761 - Prozesu Kimikoetako Tresneria eta Kontrola

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Ingeniaritza kimikoko adibideak erabiliz kontrolaren oinarritzko ezagutzak ikastea da irakasgaiaren helburua, kontrol begiztak diseinatzeko eta haren parametroak kalkulatzeko. Lehenengo kontrol begiztako elementuen dinamika ikasten da. Ondoren, atzeraelikaduradun kontrol begizta itxiaren egonkortasuna aztertzen da, eta begiztak nahi den erantzuna izan dezan kontrolagailuak diseinatu dira, irizpide desberdinak jarraituz. Industria kimikoetako aldagai tipikoak neurtzeko tresneria ezagutzea ere irakasgaiaren beste helburu bat da.

Bigarren eta hirugarren kurtsoko irakasgaietan ekipoak, unitateak eta prozesuak kalkulatu eta diseinatu dira, egoera egonkorrean. Irakasgai honetan denbora aldagaia sartzen da kalkuluetan, ekipoen, eragiketen eta prozesuen jardutean ematen diren aldaketa dinamikoak aztertuz. Horrela ekipoen, eragiketen eta prozesuen kontrola ezinbestekoa dela ikusiko da, eta nola egin daitekeen aztertzen da.

Irakasgaia II Moduluan (Industria-adarrari komuna) sailkatzen da eta ez dauka Ingeniaritza Kimikoaren ezaguera espezifikoaren beharrik, nahiz eta erabiltzen diren adibideak Ingeniaritza Kimikoari dagozkionak izan beti, lehen mailako Ingeniaritza Kimikoaren eta Bioteknologiaren Oinarriak irakasgaiaren ikusitako masa- eta energia-balantzeetan oinarrituak. Hirugarren kurtsoko bigarren lauhilabeteko "Esperimentazioa Ingeniaritza Kimikoan II" irakasgaia garatzeko oinarritzko ezagutza eskaintzen du irakasgaiak.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Gaitasunak:

- Industria mailako ekipoen tresneria eta kontrolaren oinarritzko printzipioak menperatzea
- Prozesu aldagaiak neurtzeko tresneria aukeratzea eta konparatzea
- Ikaskuntzan IKT-ak erabiltzea.
- Ezagutza eta emaitzak transmititzeko txosten teknikoak idaztea.
- Kontrol konfigurazioak analizatzea eta diseinatzeko.

Helburuak:

- Prozesuen dinamikaren oinarriak ulertzea
- Prozesuen kontroleko terminologia menperatzea
- Atzeraelikaduradun kontrolaren oinarriak ulertzea
- Kontrol begiztak diseinatzeko
- Kontrol begizten parametroak doitzea

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS**I. SARRERA**

- 1.- Irakasgaiaren helburuak. Prozesu kimiko bateko aldagaien sailkapena. Kontrol sistema baten diseinurako elementuak. Kontrol begizta baten elementuak.
- 2.- Eredu matematikoak. Oinarritzko legeak. Ereduen adibideak: CSTR seriean; CSTR ez isotermoa; berotutako ontziak.

II. SISTEMA LINEALEN DINAMIKA BEGIZTA IREKIAN

- 3.- Elementu motak. Ekuazio diferentzialak. Laplace-ren transformatua: ekuazio diferentzial linealen ebazpena Laplace-ren eremuan. Transferentzia funtzioaren kontzeptua.
- 4.- Lehen ordenako sistemen erantzuna. Perturbazioen aurreko erantzuna. Lehen ordenako sistemen adibideak.
- 5.- Sistemen linealizazioa eta sistemen arteko elkarrekintza. Linealizazio teknikak. Seriean jarritako lehen ordenako sistematik: elkarrekintzarekin eta elkarrekintzarik gabe.
- 6.- Bigarren ordenako sistematik. Perturbazioen aurreko erantzuna. Atzerapena edo denbora hila. Atzerapendun sistemetan perturbazioen aurreko erantzuna. Ohiko prozesu elementu orokorrak.

III. TRESNERIA

- 7.- Seinaleen neurketa eta garraioa. Prozesu aldagaiak. Neurketaren ezaugarriak. Neurgailuen sailkapena. Neurtutako aldagaiaren garraioa. P&I diagramak.
- 8.- Tenperatura neurgailuak. Sentsore motak eta hauen hautatzea. Presio eta nibel neurgailuak.
- 9.- Emari neurgailuak. Emari neurgailu motak eta hauen hautatzea. Konposizio neurgailuak. Laginketa eta egokitzapen sistematik.
- 10.- Kontroleko azken eragiketa. Eragileak. Kontroleko azken elementuak. Kontrol balbulak.

IV. BEGIZTA ITXIAREN KONTROLA

- 11.- Atzeraelikaduradun kontrolaren kontzeptua. Kontrolagailuen sailkapena. Oinarritzko kontrol ekintzak: proportzionala,

integrala eta deribatua. Ekintza konbinatuak.

12.- Sistema itxien transferentzia funtzioak. Begizta itxiaren erantzuna. Kontrol ekintza desberdinen eragina.

Egonkortasuna: kontzeptua eta irizpideak.

13.- Routh-Hurwitz-en egonkortasun irizpidea. Erroen kokapenaren kontzeptua. Erroen kokapenaren eraikuntza.

14.- Maiztasunaren eremuko erantzuna. Bode-ren eta Nyquist-en egonkortasun irizpideak. Irabazkin- eta fase-marjinak.

15.- Atzeraelikaduradun kontrolagailuen diseinua. Portaera aztertzeko irizpideak, ezaugarri bakunean oinarritutakoak eta denboran zeharreko erantzunean oinarritutakoak. Kontrolagailu motaren hautaketa. Kontrolagailuaren parametro hoberenak estimatzeko teknikak.

16.- Beste kontrol konfigurazioak. Kaskadan egindako kontrola. Ratioaren kontrola. Begizta zuzeneko kontrola (feedforward). Aldagai anitzen kontrola.

METODOLOGIA

Eskola magistraletan gai bakoitzaren oinarritzko teoria azaltzen da, aspektu garrantzitsuenak azpimarratuz. Informazio hori bibliografia espezifikoarekin (beherago ematen agertzen dena, eta gai bakoitza amaitzean emango dena) osatu daiteke.

Ariketa eskoletan gai bakoitzarekin lotutako ariketa tipoak ebazten dira.

Ordenagailu eskoletan Loop-Pro (Control Station) softwarea erakusten da, irakasgaia ikasteko garrantzitsua dena. Era berean, kontrolerako espezifikak diren Scilab edo Matlab-eko komando eta aplikazioak azaltzen dira, eskola magistraletan ikusitako kontzeptuak indartzeko.

Mintegi eskoletan prozesu kimikoetako tresneria azaltzen da.

Ikasgaiaren zati garrantzitsuenekin lotutako zereginak entregatu beharko dira. Zeregin hauek idatziak dira, eta eduki kontzeptualaz gain, formatua eta idatzitako aurkezpena ebaluatuko dira, plataforma birtualean emango diren arau batzuen arabera.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	28	4	22		6				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	42	10	28		10				

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 75
- Praktika (ariketak, kasuak edo buruketak) % 25

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Aurreko atalean aipatutako ehunekoak batez bestekoak dira. Ondoren ematen dira haien aplikazio-tarteak.

EBALUAZIO JARRAITUA

Idatzizko frogak. Balorazioa %60 eta %90 tartean egongo da

Idatzizko hainbat frogak egingo dira, irakasgaiaren lantzen diren kontzeptuak bereganatu diren ebaluatzeko, eta ariketak, kasu praktikoak eta buruketak ebazteko ahalmena ebaluatzeko. Froga bat gainditzeko gutxienez 5/10 lortu behar da.

Aurreko frogak guztiak gainditzen ez direnean azken frogak bat egongo da. Frogaren baten kalifikazioa 3/10 baino txikiagoa bada, ez da batez bestekorik egingo.

Bakarkako lanak. Balorazioa %10 eta %40 tartean egongo da

Hurrengo zereginak egon daitezke:

- Ariketen/kasu praktikoaren/buruketen ebazpena
- Ordenagailu praktikak
- Idatzizko txostenak

Ebaluazio jarraitutik ebaluazio finalera pasa nahi duen ikasleak, irakasgaiaren irakasleari eskatu beharko dio aldaketa, idatzi baten bitartez. Hau, kurtsoaren bederatzigarren astea baino lehen izan behar da (edo lehen idatzizko frogaren emaitzak argitaratu eta aste bete baino lehen, hau bederatzigarren astearen ondoren gertatzen bada).

Osasun baldintzak irakasgaiaren matrikulatutako ikasleko osoaren edo ikasle batzuen ebaluazioa arestian deskribatutako baldintzetan egitea ahalbideratuko ez balu, Errektoretzak emandako, eta indarrean dauden, ebaluazioaren jarraibideak beteko dira.

EBALUAZIO FINALA

Azterketa %100%. Froga teoriko batez eta ariketen/kasu praktikoaren/buruketen ebazpenaz osatuta egongo da.

Osasun baldintzak irakasgaiaren matrikulatutako ikasleko osoaren edo ikasle batzuen ebaluazioa arestian deskribatutako

baldintzetan egitea ahalbideratuko ez balu, Errektoretzak emandako, eta indarrean dauden, ebaluazioaren jarraibideak beteko dira.

EZOHKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azterketa %100. Froga teoriko batez eta ariketen/kasu praktikoan/buruketen ebazpenez osatuta egongo da.

Osasun baldintzak irakasgaiaren matrikulatutako ikasle goiaren edo ikasle batzuen ebaluazioa arestian deskribatutako baldintzetan egitea ahalbideratuko ez balu, Errektoretzak emandako, eta indarrean dauden, ebaluazioaren jarraibideak beteko dira.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Irakasgaiaren Moodle orrian esekiko den materiala.
- LOOP-PRO Softwarea.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- 1.- Stephanopoulos, G. "Chemical Process Control", Prentice-Hall, Englewood Cliffs, N.J. (1984).
- 2.- Seborg, D.E., Edgar, T.F., Mellichamp, D.A. "Process Dynamics and Control", 2ª ed. John Wiley and Sons, New York (2004).
- 3.- Bequette, B.W., "Process control: modeling, design and simulation", Prentice Hall, N.J. (2003).
- 4.- Riggs, J.B., Karim, M.N., "Chemical and Bio-Process Control", 3ª ed., Pearson education Inc., Boston, MA (2006).
- 5.- Creus, A. "Instrumentación Industrial", 8ª ed., Marcombo S.A., Barcelona (2010).
- 6.- Ollero de Castro, P., Fernández, E. "Control e instrumentación de procesos químicos", Editorial Síntesis, Madrid (1997).

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Smith, C.A., Corripio, A.B. "Principles and Practice of Automatic Process Control", 3ª ed. John Wiley and Sons, New York (2006). Traducción de la 1ª ed. "Control Automático de Procesos: Teoría y Práctica", Limusa, Mexico (1991).
- Ogunnaike, B., Ray, W.H., "Process Dynamics, Modeling and Control", Oxford University Press, New York (1994).
- Marlin, T.E., "Process Control: Designing Processes and Control Systems for Dynamic Performance", 2ª ed., McGraw-Hill, New York (2000).

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.isa.org/>
<http://www.controlstation.com/>
<http://www.library.cmu.edu/ctms/>
<http://www.controlglobal.com/>
<http://www.controlguru.com/pages/table.html>
<http://www.cambridge.org/us/features/chau/matlab/matlabindex.html>
<http://www.controleng.com/archives/2000/ctl0601.00/000601.htm>
<http://network54.com/Hide/Forum/30020>

OHARRAK

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Plana GINQUI30 - Ingeniaritza Kimikoko Gradua

Zikl. Zehaztugabea
Ikastaroa 3. maila

IRAKASGAIA

26757 - Prozesuen eta Produktuen Ingeniaritza

ECTS kredituak: 9**IRAKASGAIAAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Industriako prozesu kimikoen diseinurako oinarritzko estrategiak erabiltzen ikasten da. Estrategia hauek, ekipoen diseinu zehatza baino aurretik erabiltzen dira, ekipoen diseinu zehatza graduko azken bi ikasturteetako irakasgai berezietan ikasten delarik. Ikasketa hau prozesu kimiko industrial erreal baten diseinua egiten dute ikasleek, ordenagailu bidezko simulagailua tresna gisa erabiliaz eta analisi ekonomiko eginez diseinuaren bideragarritasuna aztertzeke. Ekoizpen handiko oinarritzko produktu kimikoen fabrikazio-prozesuak ere aztertzen dira, diseinuaren estrategiak aintzat hartuta.

"Prozesuen eta Produktuen Ingeniaritza" 3. mailan lantzen den derrigorrezko irakasgaia da Ingeniaritza Kimikoko Graduaren barnean. "Teknologia Espezifikoa: Ingeniaritza Kimikoa" 3. Moduluaren barnean kokatzen da eta modulu bereko gainontzeko irakasgaiekin (Ingeniaritza Kimikoaren eta Bioteknologikoaren oinarriak, Materia transferentzia, Bereizketa prozesuak, Prozesu Kimikoen Zinetika eta Erreaktoreen Diseinua), Industria alorreko modulukoekin (Jariakinen Mekanika, Termodinamika Aplikatua eta Bero Transmisioa) eta Oinarritzko formakuntzako modulukoekin (Zenbakizko Kalkulua eta Ekonomia Orokorra eta Enpresen Antolakuntza) hertsiki erlazionatuta dago. Hau horrela, irakasgaia zailtasun handiegirik gabe aurrera eramateko ondoko gaitasunak aldeztu aurretik menperatu behar dira:

- (1) Materia eta energia balantzeak planteatu eta ebatzi
- (2) Erreakzio kimiko baten estekiometria, konbertsioa eta hautakortasuna kalkulatu
- (3) Termodinamikaren lehen eta bigarren printzipioak erabili
- (4) Ur-lurrunaren eta airearen propietate termodinamikoak kalkulatu (U, H, S), horretarako taula eta diagrama termodinamikoak (P-V, T-S, etab.) erabili.
- (5) Materia-transferentziako (likido-bapore oreka); bereizketa prozesuetako (destilazio arrunta), jariakinen mekanikako (ponpak, konpresoreak, etab.) eta bero transmisioako kontzeptuak aplikatu; eta,
- (6) Ordenagailu bidezko zenbakizko kalkulua erabili.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Irakasgaiaren helburuak jaso dituenaren adierazgarri eta ebaluagarri diren hurrengo ikasketa-emaizak:

1. Konposatu kimiko industrial baten aurre diseinua egin.
2. Prozesu kimikoaren aurre-diseinurako informazio tekniko eta zientifikoa bilatu, eta aztertu, ingelesa bezalako atzerriko hizkuntzan daudenak barne.
3. Prozesu kimikoaren aurre-diseinuaren etapa bakoitzean fluxu diagrama egokia egin.
4. Prozesu kimikoaren aurre-diseinuan hautakortasuna, konbertsioa eta erreakzio abiadura kontzeptuak erabili erreaktorearen balantzean.
5. Ordenagailu bidezko prozesu kimikoen simulaziorako simulazio-diagrama prestatu eta ebatzi.
6. Prozesu kimikoaren aurre-diseinuan heuristika egokiak erabili estrategia egokiak aukeratzeko.
7. Prozesu kimikoaren aurre-diseinuko oinarritzko eragiketa bakoitzerako ekipoa aukeratu eta bere diseinurako funtsezko parametroak kalkulatu.
8. Prozesu kimikoaren aurre-diseinuko bero energia bateratzeko pinch metodo sistematikoa aplikatu.
9. Prozesu kimikoaren aurre diseinaturiko fabrikazio kostua eta operazio kostuak kalkulatu.
10. Prozesu kimikoaren aurre diseinaturiko prozesuaren bideragarritasun ekonomikoa kalkulatu.
11. Prozesu kimikoaren aurre-diseinuan segurutasuneko eta ingurugiroaren babeserako irizpideak erabili.
12. Prozesu kimikoaren aurre-diseinuan emaitzak idatziz (txosten teknikoan) adierazi.
13. Prozesu kimikoaren aurre-diseinua talde lanean burutu.
14. Prozesu kimikoaren aurre-diseinua aurrera eramateko jarduerak antolatu eta planifikatu.
15. Industria kimikoaren bilakaera historikoa eta etorkizuneko joerak deskribatu eta testuinguratu, denbora-lerroaz baliatuz.
16. Produktu kimiko garrantzitsuenak fabrikatzeko industria kimikoko prozesuen eskema orokorra deskribatu eta aztertu.
17. Produktu kimiko bakoitzaren fabrikazio prozesuan erabiltzen diren lehengaiak identifikatu.
18. Industria kimiko desberdinetako lehengaien dosifikazioa finkatu bakoitzean dagozkion oreka diagrama, materia edo energia balantzeak aplikatuz.
19. Industri instalazioetan aire likidoaren ekoizpena kalkulatu.
20. Industria kimiko desberdinetan erabiltzen diren operazio baldintzak eta estrategiak identifikatu eta justifikatu.
21. Produktu kimiko garrantzitsuenen erabilerak deskribatu.

Helburu honen garapenean ikasleak Ingeniaritza Kimikoko Graduan (dokumentua) jasotzen diren honako gaitasunak

lantzen ditu: M03CM01, M03CM02, M03CM05, M03CM06, M03CM10 y M03CM15, M03CM11, M03CM12, M03CM13 y M03CM14

Konpetentzia espezifikoak

M03CM01. Materialen morfologia, konposizio, egoera, energia edo erreaktibotasuneko aldaketak eragiten dituzten instalazio, ekipa edo prozesuak aztertzea.

M03CM02. Ingeniaritza kimikoaren eta biokimikoaren oinarriak gainontzeko ingeniartzetako oinarriekin bateratzea.

M03CM03. Termodinamika eta materia transferentzia oinarri izanda bereizketa eragiketak aztertu, modelatu eta kalkulatzeko.

M03CM05. Lehengaiak berrikuntza, kalitate eta jasangarritasun irizpideak jarraituz eraldatze prozesuetan integratu eta azaltzea.

M03CM06. Industria kimikoko teknikak maneiatzea, lehengaien propietateak neurriak, prozesuko atal desberdinak eta produktuak

M03CM10. Prozesuen hobekuntza irizpideak ezarri, ikerketa, garapen eta berrikuntzarako ekimenak proposatzeko.

Zeharkako konpetentzia

M03CM11. Ikaskuntzara bideratutako informazio eta komunikazio teknologiak abileziak maneiatzea, bai ingeniartza kimikoko informazio iturri eta datu baseak bai ahozko aurkezpenetarako lagungarri diren informatika tresnak.

M03CM12. Ezagutzak, emaitzak, abileziak eta trebetasunak diziplina eta hizkuntza anitzeko ingurune batean komunikatu eta helaraztea

M03CM13. Lan-taldeak antolatu, planifikatu eta zuzentzea, aniztasuna, kultura-aniztasuna eta berdintasunerako eta diskriminaziorik ez jasateko eskubideak aitortuz..

M03CM14. Lan taldeen lidergoa garatzea, eginbeharren banaketa orekatuz eta taldearen aniztasuna kontuan izanda talde egituratu bat sortuz.

M03CM15. Ingeniaritza kimikoari dagozkion arazoak, kalitatea, jasangarritasuna, etika eta bakea sustatzen duten irizpideak jarraituz garatzea.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

GAIEIEN ZERRENTA:

- 1.- Prozesuen eta produktuen diseinua. Diseinuaren izaera. Prozesuen eta produktuen diseinurako etapak. Ingurumenaren babesa. Segurtasun-baldintzak.
- 2.- Prozesuen sintesia. Aldez aurretiko datu-basearen sorketa. Prozesuen diseinuari hurbilketak. Prozesuen aldez aurretiko sintesia. Funtsezko kasuaren diseinurako garapena.
- 3.- Prozesuen sintesirako simulazioa. Sarrera. Prozesu simulatzailearen egitura. Emaita-algoritmoak. Simulazioa aurrera eramateko beharrezkoa den informazioa. Birzirkulazio-korronteak.
- 4.- Prozesuen sintesirako heurística. Lehengaiak eta erreakzioak. Produktuen banaketa. Bereizketa. Erreaktoreetan bero ematea edo kentzea. Labeak eta bero-trukatzaileak. Presio aldaketak. Solidoetan partikula tamaina. Partikulen bereizketa.
- 5.- Erreaktoeren diseinua eta erreaktoere-sareak. Erreaktoerearen azterketa. Erreaktoere idealen ereduak. Kontzentrazioa, tenperatura, presioa eta faseak. Erreaktoere errealak. Konfigurazio konplexuen diseinua. Erreaktoere-sareen diseinua eskualde eskuragarria erabiliz.
- 6.- Bereizte-trenen sintesia. Bereizte sistemaren egitura orokorra. Bereizte metodoen hautaketarako irizpideak. Ekipoaren hautaketa. Distilazio zutabeen sekuentziak. Nahaste ez idealen bereizketa-operazioen sekuentziak. Gas nahasteen bereizketa sistemak. Solido-fluido nahasteen bereizketa sistemak
- 7.- Prozesu instalazioetan energia-integrazioa. Errefrigerazio eta kalefakzio behar minimoak eta energia behar minimoak asetzeko bero-trukatzaileen diseinua. Lana eta beroaren integrazioa. Distilazio zutabeen integrazioa.
- 8.- Batch prozesuen diseinua. Prozesu ez jarraituen unitateen diseinua. Erreaktoere-banatzaille prozesuen diseinua. Produktu bakarra prozesatzeko sekuentzien diseinua. Produktu anitz prozesatzeko sekuentzien diseinua.
- 9.- Kostuen estimazioa. Ibilgetua, zirkulazioko kapitala eta totala. Estimazio motak eta hauen zehaztasuna. Fabrikazio-kostuak: Lehengaiak, zerbitzuak, hondakinen tratamendua, eskulana. Kapital-amortizazioa.
- 10.- Errentagarritasunaren analisia. Errentagarritasun irizpideak. Arriskuen ebaluazioa. Proiektuen alderapena. Ordezko ekipoen ebaluazioa. Prozesuen aldaketarako analisia.
- 11.- Produktuaren diseinua. Berritze-mapak. Produktuak garatzeko prozesua. Kontzeptu-etapa. Bideragarritasun-etapa. Garapen etapa. Fabrikazio etapa. Produktuaren sartzea.
- 12.- Industria kimikoa: Ezaugarriak. Industria kimikoaren ikuspegi historikoa. Ezaugarriak. Analisi estrukturala. Eboluzioa eta joerak.
- 13.- Energia, lehengaiak eta produktuak. Energia industria kimikoan. Laguntza-zerbitzuen osagaiak. Energia-kontsumoa eta eraginkortasun energetikoa. Lehengaiak eta produktuak. Industria kimikoa eta ingurumena.
- 14.- Industria-gasak (oxigenoa, nitrogenoa eta gas nobleak). Airearen gasen bereizketa. Hotzaren ekoizpena. Distilazioa. Industria-instalazioak. Gas nobleen lortzea. Produktuak.
- 15.- Solvay prozesua. Solvay prozesuaren kimika. Jaeneckeren diagramak. Solvay instalazioa. Kloro-sosa lortzeko prozesu elektrolitikoak. Diafragma zelulak, merkuriozko zelulak eta mintzezko zelulak. Produktuak eta aplikazioak.
- 16.- Azido sulfurikoa. Lehengaiak. Errekuntzako, katalisako eta absortzioko etapak. Produktua eta aplikazioak.

- 17.- Eraikuntzarako materialak, metalurgikoak eta ongarriak.
 18.- Petrolioaren finketa. Zatikapena. Bihurketa prozesu katalitikoak eta ez katalitikoak.
 FCC. Hydrocracking. Coking atzeratua. Produktuak eta aplikazioak.
 19.- Industria petrokimikoa. Lehengaiak. Oinarritzko prozesu petrokimikoak. Olefinen eta sintesi gasen lortzea: sintesi prozesuak, sintesi gasa, etilenoa, propilenoa. Aromatikoak. Polimero garrantzitsuak.

METODOLOGIA

- Irakasgaiaren erabili ohi diren ikaste-jarduerak ondoko hauek dira.
- Prozesu industrial baten aurre diseinua;
 - Gai bakoitzaren inguruko materialaren irakurketa eta sintesia;
 - Galdetegiak;
 - Ariketen ebazpena (simulazioa,bero-integrazioa, kostuen estimazioa, bideragarritasunaren kalkulua, materialen eta energiaren kontsumoa, etc.)
 - Irakaslearen azalpenak ikusi;
 - Bideo-aurrezpenak ikusi.
 - Galdetegiak erantzun;
 - Azterketak egin.
 - Bilaketa bibliografikoa.
 - Lanen emaitzen aurkezpena (idatzizkoa edo ahozkoa).

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	50	12	18		10				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	75	24	26		10				

Legenda: M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoa

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 55
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 45

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio sistema etengabekoa da, aurretik adierazi den bezala, egiten ikasten delako. Gauzak horrela, ikasturtean zehar ebaluagarriak diren zereginak aginduko dira, ikasketa-emaitzak berenganatzen laguntzeko.

AZTERKETAK (40 - 60%)

Bakarka.

Bi azterketa partzial gaingitu behar dira, gutxieneko kalifikazioa 5 izanik. Lehen azterketa partziala prozesu kimikoak diseinatzeko estrategiei buruzkoa izango da, eta bigarren azterketa oinarritzko produktu kimikoei eta haien fabrikazio prozesuei buruzkoa izango da. Azterketa partzialetako bat edo biak ez badira gaingitzen berriz saiatu daiteke, dagokion zatiarekin azken ebaluazio-frogan (ekaina).

LANAK, BAKARKA EDOTA TALDEKA. (40 - 60%)

Lehenengo partzialeko ikasketa prozesua industria kimikako diseinu prozesuan oinarritzen da. Proiektua taldeka garatzen da eta mugarri partzialak eta azken txostena entregatu behar dira. Proiektua gaingitzeko gutxieneko kalifikazioa lortu behar da, 5, alegia. Gaingitzen ez dutenek ekaineko deialdian bigarren aukera izango lukete.

Bigarren partzalean industria kimiko desberdinen inguruko kasu praktikoak/problema ebartzeko dira indibidualki edota taldeka, non oinarritzko diseinuzko irizpideak eta lehengaien dosifikazioa kontuan hartuko diren. Bestetik, industria kimiko desberdinak aztertuko dira taldeka, industri-mailan ezarritako diseinu eta operazio-irizpideak aintzat hartuta.

OHARRA: ETENGABEKO EBALUAZIOARI UKO EGIN.

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaiaren kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita (8.3 art UPV/EHUko Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia).

Azken ebaluazioak aukera ematen du proba baten bitartez ebaluatzeko ikaskuntzaren emaitzak. Proba hori irakasgaiaren ebaluazio orokorra egiteko azterketa edo jarduera batek edo gehiagok (lanak, proiektua, bakarka edo indibidualki) osatuko dute eta azterketa aldi ofizialean egingo da. (8.2b art).

OHARRAK: EBALUAZIOARI UKO EGIN:

Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute (12.1 art)
Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azterketa partzial bakoitzaren pisua irakasgaiko kalifikazioaren % 40 baino txikiagoa denez, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari (12.2 art.)

Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea (12.3 art.).

"Osasun baldintzak irakasgaiaren matrikulatutako ikaslego osoaren edo ikasle batzuen ebaluazioa arestian deskribatutako baldintzetan egitea ahalbideratuko ez balu, Errektoretzak emandako, eta indarrean dauden, ebaluazioaren jarraibideak beteko dira."

EZOHICO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

AZTERKETAK (40 -60%)

LANAK, BAKARKA EDOTA TALDEKA. (40-60%)

"Osasun baldintzak irakasgaiaren matrikulatutako ikaslego osoaren edo ikasle batzuen ebaluazioa arestian deskribatutako baldintzetan egitea ahalbideratuko ez balu, Errektoretzak emandako, eta indarrean dauden, ebaluazioaren jarraibideak beteko dira."

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

PRO/II Prozesu-simulagailua.
eGELA plataforman ikaste-material erabilgarria.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

"Product & Process design principles: Synthesis, analysis and evaluation", 3^a ed.
Seider, W.D., Seader, J.D., Lewin, D.R., Widagdo, S., John Wiley & Sons, N.Y, (2010).
"Analysis, Synthesis, and Design of Chemical Processes", 3^a ed.
Turton, R., Bailie, R.C., Whiting, W.B., Shaeiwitz, J.A., Prentice Hall PTR (2009).
Vian, A.; "Curso de Introducción a la Química Industrial", 2^a edición. Reverté. Barcelona (1999).
Stocchi, E.; "Industrial Chemistry". Volumen 1. Inorgánica. Ellis Horwood, London, (1990).
"Product Design and Development", 4^a ed.
Ulrich, K.T., Eppinger, S.D., McGraw-Hill International Edition(2008).
"Survey of Industrial Chemistry". 3^a ed.
Chenier P. J., Kluwer Academic. New York (2002).
"An introduction to Industrial Chemistry"
Heaton, C.A.(ed), Blackie Academic & Professional (London) 2^o ed. (1991)
"Cryogenic Systems". 2^a Ed.
Barron, R. F., Oxford University Press. New York (1985).
"Sulfuric acid manufacture Analysis Control and Optimation".
Davenport, W.G and King, M.J., Elsevier. Amsterdam (2006).

Gehiago sakontzeko bibliografia

"Chemical Product Design".

Cussler, E.L., Moggridge, G.D., Cambridge University Press, (2001).

"Chemical Engineering Design", 5^a ed.

Sinnot, R.K., Towler, G., Butterworth & Heinemann, Burlington, MA (2009).

"Plant Design and Economics for Chemical Engineers"

Peters, M.S., Timmerhaus, K.D., West, R.D., 5^a ed., McGraw-Hill, Nueva York (2002).

"Systematic Methods of Chemical Process Design"

Biegler, L.T., Grossman, I.E., Westerberg, A.W., Prentice Hall, N.J. (1997).

"Encyclopedia of Chemical Processing and Design",

McKetta, John J. (Ed.), Marcel Dekker, INC. New York (1977-).

"Inorganic Chemistry - An Industrial and Environmental Perspective",

Swaddle T.; Elsevier, (1997)

"Industrial Organic Chemistry". 3^a ed.,

Weissermel K. & Arpe J., VCH Publishers, Inc. New York (1997).

"Handbook of Industrial Chemistry",

Farhat A., Bassam M.A. and Speight, J.G.; Chauvel A., Lefebvre G., Editions Technip, Paris (1989)

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

http://www.cheresources.com/process_design.shtml

<http://www.process-design-center.com/>

<http://www.ingquimica.com/>

<http://www.aiche.org/>

<http://www.icheme.org/>

<http://www.sener.es/SENER/index.aspx>

<http://www.trsa.es/spanish/index.asp>

OHARRAK